

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO

## Sain-arraina

ESPAINIAKO INPERIOAREN harropuzkeriari estuegi lotuak bizi ginen euskaldunak, mundu erdia hankapean zuen estatu hiltzaile haren estolderia eta minda-zuloetan geuretako askok bete zituen patrikak. Urapar hartatik, ordea, kalte larria besterik ezin etorri. Guda txoroetan urperatutako ontziteriak gizarte hiritar eta industrial osoa eraitsi zuen. Eskerrak artoa Ameriketatik ekarria genuen ordurako. Burdingintza, merkataritza, ontzigtza eta abar utzi eta lurra lantzerantz eman zen jendea. Artoak gariak halako zazpi ematen zituela jabetu eta hiriak hustu eta baserriak eraiki eta eraiki hasi ziren.

Itsasoan merkataritzarako eta gudarako nagusitasuna galduta, arrantzari besterik ezin izan zitzaion taxuz eutsi. Balea eta bakailaoa ziren arrantzaleen helburu. Gazitutako bakailaoa urte osorako eta nonahirako jaki estimatua zen. Sardina zaharrarekin batera itsasotik urruneko lurretan jaten zen arrain bakanetakoa.

Balearena beste mundu bat zen. Balea ez zen jaten, baina jakiak baino diru gehiago egiten zuen. Saina edo lumera kentzen zitzaion baleari, koipea alegia. Sain-arraina ere esan izan omen zaio. Balea harrapatu eta lurrera ekarri ondoren zatitu, gantz puskak dorla edo pertza handietan surtan urtzen ziren. Urtutako saina barriketan garraiatzen zuten. Balearen koipe hau egungo petrolioaren dena. Europa erdia hark argitzen zuen. Argiontzien saina behar zuten eta makina bat arrantzaletan diru iturri ederrenaren bat zen.



PULULANTE-CC BY SA

Baleen koipea zen garai batean gaur petrolioaren dena. Haietatik ateratako sainaz argitzen zen Europa erdia. Argiontzien metxa eskuineko argazkian ageritako *Lychnis coronaria*-ren lastoarekin egiten zen.



RALF ROLETSCHEK-CC BY SA

Argiontzi hauek metxa edo mukia behar zuten. Metxa hau *Lychnis coronaria* belarraren zortzenarekin edo lastoarekin egiten zen. *Lychnis* hitzak grekoz argia esan nahi du. Nahikoa argi dago, ez da? Genero bereko *Lychnis flos-cuculi* ezagunagoa dugu gure inguruetan.

**azkonobieta**  
**basogintza lanak**

baso-berritzeak  
kimatze lanak  
abereentzako itxiturak

© 943 694 554 / 656 720 607  
Goiballara · Azkonobieta Berri z/g  
20159 Asteasu (Gipuzkoa)